



NONDIK GATUZ

AKORDIOAREN JARRAIPIEN BATZORDEAN JASOTAKO(A2018/09/20)

LAN ESKAINTZA PUBLIKOA	5000 lanpostu legegintzaldi honetan 2017: 740 maisu-maistren kidegoan 2018: 1511 bigarren hezkuntzan + Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoan	2019: 1800 maisu-maistren kidegoan + 95 Irakaskuntza espezializatuak kidegoan (Hizkuntz Eskola Ofizialak, Musika kontserbatorioak,...) LEP ereduaren eta prozesuaren berrikuspena eta egokitzapena sindikatuekin adostu behar da planifikazio batzorde teknikoan. Hemen, beste formatu bateko azterketen aukera, merituen ponderazioa edo beste LEP baterako nota gordetzearen aukera aztertuko da.
ORDEZKAPENAK	Lehen egunetik PTE eta liberazio sindikal kasuetan HHko bajak eta norberaren gauzetarako baimenak, jakinarazi eta hurrengo egunetik Hirugarren egunetik LH eusk. eta ingeleseko irakasleen bajak Laugarren egunetik LHko gainontzeko bajak Bosgarren egunetik BH, LH(FP), HEO, kontserbatorioak,...	Ordezkapenak etapa guztietan lehen egunetik . Dagoeneko indarrean dagoen instrukzioak hau dio: irakasleen absentsien jakinarazpenak jasotakoan, ordezkatu egingo dituzte irakasleak (aurrez ikusitako absentsiak zein gerora sortutako arrazoiengatik absentsiak), jakinarazpena jaso eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.
ALDI BATERAKO EZINTASUNAREN OSAGARRIA	1-3 egun biartean lansariaren %50 jasotzen da 4-21 egun bitartean lansariaren %75 21 egunetik aurrera lansariaren %100	%100 jasotzea ahalbideratzea lehen egunetik eta kasu guztietan. Irailaren batetik aurrera indarrean dago. Hala ere irailean edo urrian bajan egon edo egongo direnei soldatan kenkaria izango dute, azaroako nominan kendutako guztia bueltatuko zaielarik.
SOLDATA	2010 %5 jeitsi 2012 -%2,5 Itzarriko ekarpena kendu 2011-2015 izoztuta 2016-2017 %1 igoera	2018: urtarrilatik ekainera +%1,5 eta uztailetik abendura +%1,75 urtarriletik uztaileko igoera urriko nominan sartuko dute. Itzarriko ekarpena %1ekoa. 2019: aurrekontuen proposamenean +%2,25 eta Itzarri %1,5
HAUR HEZKUNTZA 3 URTEKO GELAK	Laguntza neurrik ez dago.	Batezbesteko ratioa 20tik gora denean 1 edo 2 talde daudenean: maisu-maistra 1/2 3 edo 4 talde daudenean: maisu-maistra 1 5 talde edo gehiago daudenean: maisu-maistra 1 eta 1/2 Neurri honekin 60 lanpostu berri sortu dira.
LEHEN HEZKUNTZAKO PLANTILLAK INDARTZEA HEZKUNTZA BEHARREN INDIZEAREN (HBI) ARABERA	Laguntza neurrik ez dago.	HBI oso altuko ikastetxeetan: lerroko maisu-maistra 1 HBI altuko ikastetxeetan: lerroko maisu-maistra 1/2 Neurri honekin 126 lanpostu berri sortu dira.
BIGARREN HEZKUNTZAKO PLANTILLAK INDARTZEA HEZKUNTZA BEHARREN INDIZEAREN (HBI) ARABERA	Laguntza neurrik ez dago.	2018-19 ikasturtean DBH1 eta DBH2. Lanketa honetan ari dira eta urtarrilerako martxan egon daitekeela esan digute. 2019-20 ikasturtean DBH3 eta DBH4 Irakasle gehigarriak gai tronkalak bikoizteko izango dira
LANBIDE HEZIKETA	Euskalduntze planik ez dago eta dualerako irakasle gutxi	Euskalduntze planerako 78 irakasle gehiago legegintzaldian Lanbide Hez. Dualerako 38 irakasle gehiago 17-18tik aurrera Informazio berririk ez dugu jaso.
ADMINISTRAZIO LANGILEAK HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN	Administrazio lanak maisu-maistrek egiten dituzte (gal daitezkeen 191 irakasle lanpostu guztira)	Irakasle galera handia ikusita (administrariak AKA orduetatik atera nahi zituzten) , proposamen hau aurrera ez eramatea eskatu genuen. Aurrerago, planifikazio batzorde tekniko batean aztertuko da.
ORDU LEKTIBOEN MURRIZKETA ADINAGATIK	Adinagatik ordu/lanaldi murrizketarik ez dago	60 urtetik gorako irakasleentzat 1/3ko murrizketa ordu lektiboetan irakasle funtzionarioentzat. Lizentzi hau 450 irakasleek hartu dute, beraz 150 lanpostu berri sortu dira. HH eta LHn 59 urtetik gorakoentzat 2 orduko murrizketa asteko ordu lektiboetan. Lizentzi hau 203 irakasleek hartu dute.
LIZENTZIAK ETA BAIMENAK	2010-12 Lan Hitzarmeneko 36. artikulutik 60ra	Bat aipatzekotan, aitatasun lizentzia da. Dagoeneko indarrean dago eta umea jaiotzen egunetik aurrera 5 astetako lizentzia izango du. Aste hauek jarraian hartu beharko dira.

Aipatzeko moduko beste puntu batzuk:

Zerbitzu eginkizunetako lanpostuak Lehiaketa Prozesuetara atera, langile hauek gaur egun betetzen dituzten bi lanpostuetatik bat askatuz. Prozesu honetan gardentasuna eskatu dugu. Zein lanpostu askatu nahi dituzten zerrendatzea eta sindikatuekin partekatzea eskatu dugu alegazioak sartu ahal izateko.

Bitartekoen egonkortasuna. Gai honek lehentasuna du eta hemendik 2 astetara izango dugun jarraipen batzordean gai monografikoa izango da. Gobernuaren proposamena honako hau da: Lanpostu hutsak betetzen dituzten bitarteko funtzionarioak lanpostu horietan mantendu ahal izatea harik eta postua arazututa bete edo funtzionario titularra itzultzen den arte. Neurri honek 2500etik gora interinori egonkortasuna emango lieke. Proposamenak arantza asko ditu.

Ordezkoen zerrendak kidegoka irekitzea eta zonaldeko sistema aztertu. 2018ko LEPera atera ziren kidegoko zerrendak ez dira zabaldu, akordioa LEP deialdiaren ondoren sinatu zelako. Hemendik aurrera LEP bat aurreikusita dagoen ikasturtean zerrenda hauek ireki eta zabalik mantenduko dira. Horrela, urte gutxitan, zerrenda guztiak zabalik egongo lirake. Zonaldeko sistema aztertuko da eta kudeaketa telematikorekin aurtengo ikasturtean hasia aurreikusten da.

Bateragarritasuna. Derrigorrez jardunaldi partziala duten irakasleei, euren jardunaldia osatzea baimenduko zaie, Bateriaezintasunen legearen markoaren barruan. Neurri honek arantza batzuk baditu eta aurrerago, planifikazio bilera batean adostu beharko dugu.

Ordu lektibo murrizketa adinagatik bitarteko irakasleei zabaltzeko aukera zein baldintzatan emango den lan-baldintzen akordio globalaren markoaren barruan aztertu eta negoziatuko da eta lehentasunezko gaia izango da. Gai honi hurrengo bilera batean eutsiko diogu.